

## ESKERRIK ASKO RAMON

Obsexua: sexuarekiko obsesioa

Obsesioa: buruan bueltaka darabildan ideia, behin eta berriro errepikatzen dena pentsamenduz edo ekintzaz

Obszenoa: lizuna, normalean sexuari lotutako egoera

*Burua errementau egin behar jota. Gure adinean zelan hasiko naz holakoetan.*

*Zoratu egin zara. Hau lotsa.*

*Egun batean gugaz etorri behar dozu. Ikusiko dozu*

Imajinatzen nituen nire lagunak Benidorreko hotelean, gauetako dantzaldirako prestatzen: ipurdia altxatzen eta tripa sartzen dituzten kuleroak janzten; taila bat txikiagoko sostenak aukeratzen titiek gora egin zezaten; alkandorako hirugarren botoia askatzen; matrailak eta, orain arte margotu gabeko ezpain ez hain haragitsuak koloreztatzen, gorriz, noski; nola hitz egin, nola egin irribarre... Eta aurrean hirurogeita bost urtetik gorako agureak: gerria ezin mugitu eta sabela sartzeko indarra eginez oxigenorik gabe geratzeko zorian, barneko kirioak askatu nahian eta bragetako "txoritxo"ren ezintasuna txioka aritzeko.

*Adin horretako gizonak berotuten ete dira? Ez dakit.*

Nire senarra, behintzat, berotu egin zen: bere erretiro bazkaria zela-eta, lankideekin bazkaria egin behar zuela-eta, goizean goizetik atera zen etxetik. Pintxo-pintxo, dotore benetan: aurreko astean erosi nion alkandora zurixka estreinatu zuen, eta alpagata antzekoak ere bai. Goizaldeko ordu bietan bueltatu zen. Mozkortute. Baina horrek ez ninduen mindu, lotan zegoela errepikatzen zuen izenak baizik: *Linda*

Ni, ez nintzen Linda. "Linda" bai, hori esaten zuten guztiek. *60 urte beteta izateko tximurrik be ez dozuta, Arantzi! Arantzi, Arantzi... Arantza naizela, ez naizela ume moko bat Arantzi deitzeko.*

Lindarena errepikatu zen beste behin, eta beste behin. Deitu ere egiten zion, mezuak ere bidaltzen zizkion. Ez zen lankide bat. Azken taberna, azken tragoa, eta lehen engainua. Horrela esan zidan, baina ni maite ninduela. *Bai, bere zain egoteko, bazkariak prestatzeko...*

Askatu behar zela-eta etxetik alde egingo zuela, Lindarekin, ez dakit nongo herrira eta nongo etxera bizitzen, bere erretreta-soldata nahiko ona zela bientzako eta niretzat pisua eta kotxea. *Eskerrik asko Ramon.*

Babalore aurpegia izan nuen hilabeteetan, neure errua zela leporatzen nion nire buruari. Gutxi ateratzen nintzen etxetik: alaba eta ilobarekin paseoren bat. *Alabak, ama alaitu aurpegi hori eta lagunak deitu. Ezin. Zatoz gugaz bariku gauean dantza egitera.* Lagunak. Ezin. Bost urte pasatu dira eta aurrera egin beharko dut. *Ari naiz, ari naiz baina...*

Linda desagertu zen, eta desagertu orduko Begoren bat agertu zen. Badakit Ramon zoriontsua dela modu horretan.

Behin haxe erabaki nuen: *Gaur aterako naz lagunekaz. Bilbora.*

Kaleko zaratak ere min ematen zidan.

*7 zenbakia ze ondo, nire gogoko zenbakia.*

Tabernari gazteak, traje zuriz jantzita, pajarita eta guzti, Frank Sinatra bere garairik onenean.

Argi koloretsu geldi ezinek dir-dir egiten zuten Boluetako merkatuan erositako bitxi jostagarriak agerian utziz. Klink-klank.

*Zer egiten ari naz hemen? Hobeto nengoke Erriberatik edo paseo bat emoten, izozki bat eskuan dodala.*

*Benga Arantzi!*

*Astuna bada ba!*

Rocio Jurado, Raphael, ez mesedez “Tengo la camisa negra.... camon beibi, camon beibi... eta nik marinera zuri-zuria.

Emakumezkoak ginen gehienok, zortzi-hamar gizonezko egongo ziren guztira, sabela sartzean itotzeko zorian, nork egingo bokaboka baten zain.

Bat hurbildu zitzaidan, baina ez nuen batere gogorik harekin aritzeko. Seigarren abestirako nekatuta nengoen, ez dantza egiteaz, baizik eta tokiaz, lagunez, giroaz... *Hartuko dut zerbait.*

*Atera egidazu zerbait.* Ile kiribilduak erortzen zitzaizkion kopetatik, Begi ilunak nire aurpegian iltzatu ziren, aztertzen.

*Zer nahi duzu? Zerbait fuerte, ea mozkortzen naizen (zer ari zara esaten?) Ez zaude gustura, ezta? Ikusi zaitut sartzen eta argi dago ez zarela besteak bezalakoa. Gin-tonik bat? Ginebra asko bota. Alarguna ala banandua? (zer axola dizu!) Ez izan lotsabako. Banandua.... goxo dago. Lau trago izango ziren,*

bost akaso, berehala bukatu zitzaidan gin-tonika. Musika, argiak, gin-tonika...  
*Ondo zauz Arantzi? Baietz. Beste bat aterako dizut? Ez mozkortuko naiz. Hori behar duzu, beharbada. Ez izan lotsagabea, zure ama izan neike-ta.*

Eta beste gin-tonik bat. *Hamabiak hamar gutxiago, jada, eta hauek oraindik dantzan!!! Taxi bat deituko dut. Nik hamabietan bukatuko dut txanda, lagunduko zaitut. OK.* Gin tonika izango zen, baina neure ahotik atera ziren hitzak izan ziren. Ginebrak labaindutako berbak beharbada.

Jaka eta poltsa hartu. *Freskatu egin du gaua, nabari da aurpegian baina ez gorputzean. Badekott halako sargoria danean! pisutsu sentitzen naz, mugitzea ere kostetan jata. Oinak eta eskuak be handituago daukadaz.*

Bigarren gin-tonikak eragindako bero ez-natural hori gustuko nuen. Autoko atea irekitzean, usaina deigarria egin zitzaidan: txinoren batean erositako kartoizko zuhaitz berde hori ikusi nuen erdiko ispiluan iltzatuta. Mugitu egiten zen ezker-eskuin.

*Musika jarriko dut? Zeuk aukeratu. Bat-batean (harrigarria iruditu zitzaidan)* musika klasikoak bete zituen uhinak, eta nire belarriak eta zentzumen guztiak. Begiak itxi nituen. Ez zen logura, aspaldiko partez erlaxatuta nengoen, lasai. Bost minutu, ez dakit zenbat eta...

Esku batek laztandu ninduen aurpegia, baina ez nituen begiak ireki.

Berotasuna igarri nuen matrailean. Esku epela zen; esku epela eta leuna; esku epela, leuna eta gaztea. *Ez ezer esan.* Belarriko zirrikietatik zerbait hezea nabaritu nuen (*mihia izango da*). Bere arnasak eta nireak bat egin zuten, nahi gabe. Gorputzak plazerezko keinu azkar bat egin zuen. Hasperen lotsatua atera zen nire ahotik. Bere atzamarrak isilarazi zidan sortuko nuen kexa hitza. Eskuak lanean hasi ziren. Jakako botoiak ere labaindu ziren azkar. *Lasai* Abiadura bizian pasatu zen auto baten zaratak entzun ziren; sirena hotsak ere baziren nonbait.

Alkandorako lehen botoien espazioa nahiko izan zen sostenak agerian uzteko. Sosten zuriak, kuleroak bezalakoxeak. Sostenaren erdiko kosturak zeharkatu zituen atzamar jostariak behin eta berriz, musika konpasatua lagun zuela. Trebea zen, oso. Bide-zidor estu batetik titi puntak laztandu zituen: gogortuta zeuden. Gorputz osoa tente jarri nuen.

*Erlaxatu!* Arnasa azkartzen eta estutzen ari zen. Besoak gorputzetik desitsatsi nituen eta luzatu, buruaren parean ezker-eskuin. Mugimenduan bere ile kiribildua laztandu nuen. Ziztada batek erre zidan sabela, tximistaren elektrizitatea sentitu nuen goitik-behera zeharkatzen, eta hankak estutu nituen. Bere eskuak gona altxatu zidanean, panty beltzen gainean nabaritu nuen laztana. Nire esku batek gelditu nahi izan zuen. *Erlaxatu, lasai!*

Atzamar jostariak zirkulu ia perfektuak marrazten zituen pantyen eta kuleroen arteko espazioan. Hasieran zirkuluak zirenak, bi atzamarren bide paraleloak bihurtu ziren bi ezpainen ingurutik. Hasieran ezia. Nire eskua luzatu eta bera laguntzeari ekin nion. Aktoreen paperak aldatu ziren: nire atzamarrak ziren nire ezpainen hezetasuna laztantzen zutenak eta bereak, laguntzaileak.

Plazerezko keinuek eragiten zidaten hankak estu-estu jartzen, baina ezin... atzamar bat sentitu nuen ahoko ezpainen artean. Zapore gazi-goxo-hezea. Nire ahoak dastatu zuen ito beharrear, ume jaio berriak lehen aldiz amaren titia xurruptzen duen bezala. Gosez, sartu-irten xuabe bezain perfektuek burua galtzera eraman ninduten. Mugimenduak azkartu ziren konbultsioak bailira. *Xuabe entzun nuen. Luzatu egin dezakegu. Itxoin apur bat. Ez dakit hori nahi nuen ala ez. Ezpainenatik bularraldera, sabelera, beheko ezpainenara...*

Atzamarrak bere bidea egin zuen. Hankak ireki eta mendia sumendi bilakatu zen... Hasperenak bere gain hartu zuen autoko giroa. Irratiko musika klasikoak ere bere bidea egiten jarraitzen zuen.

Bost minutu, ez dakit zenbat eta... Motorraren hotsak esnatu ninduen.

Begiak ireki nituen. Marinerako botoiak lotuta zeuden, Gona ere bere lekuan zegoen. Ondoan nuen pertsona nor zen jakitea kostatu egin zitzaidan hasieran, oraindik laino-hodei-airean nengoen.

Begira-begira neukan. Begiekin keinuren bat egin zidala ematen zuen, irribarretxoa ere margotu zuen aurpegiak. Lotsa ere sentitu nuen. *Nire semea izan leike!! Zenbat urte izan leikez? 23?*

Ilea atontzen hasi nintzen eta ezpainenakoarekin koloreztatu nituen oraindik heze zeuden ezpainak. *Zer gertatu da? Zertan ari naiz?* Motorra gelditu zen. *Hau da zure etxea, ezta? Bai.*

*Nola ordainduko dizut? Hurrengo ostiralean, azken tragoa zure kontura!!!*

Ez nuen atzera begiratu, autoaren motorrak salatu zuen alde egin zuela, jada.

*Errealitatea ala ametsa izan ete dan jakin nahi dot.* Atariko hiru mailak azkar igo

nituen. Sarrailak ezker-eskuin egin zuen, eta etxearen babesaren sentitu nuen korridoreko argia piztu zenean.

Poltsa lurrera erortzen utzi nuen (eguneroko keinuak errepikatzen ziren orain ere) eta komunerako bidea hartu nuen. Kuloak jaitsi eta... *Non dekodaz pantyak?*